

2019/2020

www.laiaeskola.eus



LAIA eskola

Arabako emakumeon jabeakuntzarako eta
berdintasunerako eskola

TREBIÑUKO
ENKLABEA



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

LAI Aeskola Trebñuko Enklabea

Trebñuko Konderriko Udala:

☎ 945 36 00 18

📍 María Díez de Ure Plaza 1. 09215 Trebñuko Konderria

Argantzungo Udala:

☎ 945 37 30 06

📍 Plaza Nagusia, 2. 09294 Argantzun

Kolaboratzailea: Trebñuko CEAS Miranda Rural-C.
(Burgoseko Probintzi Diputazioa)

Informazioa, kontaktua eta izen-emateak:

✉ info@laiaeskola.eus

✉ [ceas11ac1@diputaciondeburgos.es](mailto:ceas11ac1@ diputaciondeburgos.es)

Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Hautzaindegi eta garraio zerbitzua: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Eguneratuta egon zaitezten, eman izena **hileroko buletin digitalean** web orriaren bidez! Ekintza, baliabide, gaurkotasan zein berritasunen inguruko informazioa jasoko duzu.



@Laiaeskola



@LaiaEskola #LAI AeskolaTrebñio



www.laiaeskola.eus



LAI Aeskolako Idazkaritza teknikoak: Berdintasun Proiektuak, S. Coop.
Diseinua eta Maketazioa: La Debackle
L.G.: VI-771/2019



Eduki hau Creative Commons Aitortu – BerdinPartekatu (by-sa) lizentziapean dago, lanaren eta bertatik eratorritako lanen erabilera komertziala ahalbidetzen du, jatorrizkoaren lizentzia bera erabiliz.

Aurkibidea

LAI Aeskola Trebiñu	5
LAI Aeskola: proiektu ireki eta parte-hartzailea	6
Indarkeria matxistarik gabeko Trebiñuko Enklabe baten alde	7
LAI Aeskolaren programazioaren aurkezpena eta Itziar Gandiárekin Solasean: "Zaindu, elkar-zainduz"	9
"Ordu bioleta" Irakurle-Klub Feminista	10
Gorputz eta emozioen bidezko jabekuntza - Biodantza	11
Berdin zinema - Zineforum Feminista: El despertar de las hormigas	12
Autodefentsa Feminista lantegia - aurreratua-	13
"Burutik jota", Psico Woman	14
Berdin zinema - Zineforum Feminista: Nos batallas	15



LAI Aeskola Trebñu

Trebñuko LAIAeskolarako gonbita luzatzen dizuegu.

LAI Aeskola, Arabako emakumeon jabe-kuntzarako eta berdintasunerako eskola, Arabako lurralde osoan zehar hedatzen da kuadrilla guztietara helduz, baita Trebñuko Enklaberera ere.

Hogeiak gora eskolez osatutako Euskal Autonomi Erkidegoko jabe-kuntza eskolen sareko kide da, estrategiak eta helburuak modu berezi batean partekatuz, LAIAeskolaren irismena udalerriri bakar batetik baino askoz haratago doa.

Lurralde anitz baten errealitatera moldatzeko apustuak eskola malgu, ireki eta dinamiko bat eskatzen du, eragile politiko, tekniko zein elkarten parte-hartzeari esker modu kolektiboan eraikia.

Azken finean, LAIAeskolak kuadrillen, udalerrien, erakunde sozialen, mugimendu feministaren, emakumeen kolektibo zein elkarten lana biltzen du, gure gizartea justuagoa, berdinzaleagoa eta indarkeriarik gabeta izan dadin.

Ondoko orrietan topatuko duzue Trebñuko programazioa. Gorputzetik eta gogamenetik ekin eta formatzeko lantegiak; hausnarketak partekatu eta ideiak elkartrukatzeko inspirazio diren zinea, antzerkia edo literatura; gure begirada zabaldu eta gure ikuspegi propioa partekatzeko solasaldiak, topaketak eta ikasteko jardunaldiak.

Gu ezagutzeko gonbitea luzatzen dizugu, eskuartean *laia* hau hartu eta bertan parte har dezazun, elkarrekin batera parekidea ez den gizarte bidegabeta eta baztertzaila honi eusten dioten oinarri eta oztopoak iraultzeko. Soilik horrela landatu, ernamuindu eta hazi ahalko gara berdintasunean.

Ongi etorri!!



LAI Aeskola: proiektu ireki eta parte-hartzailea

LAI Aeskola Trebiñu errealtate bilakatu da 2018an sortu ostean, gure bigarren urteari aurrera egiteko asmoz ekin diogu eta gizarte justuago eta berdinzaleago bat ikusi nahi duten pertsona guztien parte-hartzerako espazio hau indartuz eta bermatzeko pausuak ematen jarraituko dugu.

Argantzuko eta Trebiñuko konderriaren arteko elkarlaren fruitua da honako programazio hau.

Zenbait proposamenek 2018an jabekuntza prozesuei hasiera eman zieten emakumeei zein batu nahi direnei zuzenduta daude, hala nola, "Ordu bioleta" Irakurle Klub Feminista gaztelaniaz, Autodefentsa feminista zein Biodantza lantegia.

Beste batzuk ekintza berriak dira, irekia eta topaketa, ideia elkartruke eta ikasketa espazio izateko sortuak. "Solasean..." egitasmoaren baitan gaur egungo eztabaidetan murgildu ahal izango gara adituen eskutik eta giro informal eta lasai batean, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta, noski, baita ekarpenak egiteko ere. Berdinezinemako saioetan, zine onaz gozatzeaz gain, eztabaidatu, hausnartu eta errealtate ezberdinak partekatuko ditugu genero ikuspegitik batetik.

LAI Aeskola, zalantzarik gabe, ilusioa pizten duen proiektua, integratzaile eta eraldatzailea da Arabako Lurralde Historiko osoarentzat. Bertan parte har dezazun gonbidatzen zaitugu!

Indarkeria matxistarik gabeko Trebiñuko Enklabe baten alde

2018an, LAIAeskolaren inaugurazioaz batera, **Trebiñuko Enklabean indarkeria matxistaren aurkako koordinazio protokoloa** garatzeko prozesua hasi zen. Prozesu hori "Sortzen" genero indarkeriaren prebentzioan aditua den aholkularitzak gidatu du.

Bi ekimen hauek Arabako eta Burgoseko Diputazioen artean sinatutako hitzarmenari esker jarri ziren martxan, Trebiñuko Enklabeko errealitate eta egoera bereziara egokitutako berdintasun politika egonkor batzuen alde aurrera egiteko asmoz.

LAI Aeskolaren gisara, indarkeria matxistaren aurkako protokoloak Arabako Kuadrilla guztietan txertatuz joan dira, Arabako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV Planeko ardatz gisa. LAIAeskolak emakumeen jabeakuntza prozesuak eta herritar guztiekin indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat oztopatzen duten balore eta estereotipoak zalantzan jartzeko lan egiten duela esan genezake. Koordinazio protokoloek egun ere iraunarazten duen errealitate baten aurrean instituzioen arteko prebentzio eta esku-hartze mekanismoak finkatu nahi dituzte.

Aurrepauso gisa, indarkeria matxistaren eta emakume eta gizonen arteko bestelako ezberdintasunen inguruko diagnostiko bat egitea ezinbestekoa da, horrela, Trebiñuko Enklabearen argazki bat izateko, bere indargune eta ahulguneekin. Diagnostikoaren helburua ondokoa ezagutzea da:

- Genero indarkeriaren errealitatea, salaketetan eta biktima diren emakumeentzako existitzen diren bitartekoei eskatutako babes-eskaeretan oinarrituta.

- Enklabeko zerbitzu eta bitartekaritzan lan egiten duten langileen iritzi eta esperientziak.
- Herritarren iritzia udal berdintasunerako politika eta ekintzei buruz.

Protokoloa garatzeko indarkeria matxista jasan duten emakume biktimen arretarako entitate anitzen arteko prozesu parte-hartzaile baten beharra dago. Lan prozesu hau esku-hartzera bideratutako eragileak elkar ezagutzeko, eztabaidatzeko eta irizpide bateratuak garatzeko aukera ere bada.

Azken helburua Trebiñuko Enklabean indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arretarako koordinazio protokoloa bat garatzea da, gai izango dena kalitatezko babes publiko eraginkor eta koordinatu bat emateko, betiere diagnostikoan atzemandako egoerari egokituia eta instituzioen erantzun publikorako irizpide argiekin.



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

LAI Aeskolaren programazioaren aurkezpena eta Itziar Gandíarekin Solasean: "Zaindu, elkar-zainduz"

2019-2020 ikasturteko LAI Aeskolaren aurkezpenaren ostean, emakumearentzako autozaintzari buruzko solasaldi irekiari hasiera emango diogu, Itziar Gandíarekin. Emakumeak zaintzera ohituta gaude, baina zainduak sentitzen al gara? Elkar zaintzen al dugu? Zer da nork bere burua zaintzea? Non kokatzen dut nik neure burua egunero egiten ditudan zaintzen zerrendan? Garrantzitsua naiz, eta beraz, zerrenda horretan egotea merezi dut.

Hizlaria: **Itziar Gandía**, psikoterapeuta, hazten dagoen emakumea eta etorkizunera bidaiaria

Data eta ordua: **2019ko irailaren 27a**
ostirala 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Trebiñuko Konderriko Udaletxearen azpiko lokalak

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Trebiñuko Konderriko Udala
Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Argantzungo Udala

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

“Ordu bioleta”

Irakurle-Klub Feminista

Irakurle-Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakerak, iritzi artikulua, poesia... irakurriko dugu eta liburu eta edukiari buruzko norberaren iritzia besteenarekin osatuko dugu.

Esperientziak besteenekin partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabekuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat.

Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

Koordinatzailea: **Begoña Etayo Ereña**, genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua. María de Maeztu Forum Feministako kidea

Data eta ordua: AURKEZPENA:
2019ko urriak 18
ostirala 18:00etatik 20:00etara
Hileko hirugarren ostirala, ordu berean

Tokia: Trebiñuko Konderriko Udaletxearen azpiko lokalak

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Trebiñuko Konderriko Udala
Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Argantzungo Udala

Informazio +: Hurrengo tokiak lehen saiora hurbiltzen diren emakumeekin batera erabakiko dira
Izen-ematea: inskripzioak@lajiaeskola.eus;
ceas11ac1@diputaciondeburgos.es;
945 36 00 18; 945 37 30 06

Gorputz eta emozioen bidezko jabekuntza - Biodantza

Poztasuna, grina, sorkuntza, determinazioa, erlaxamendua, plazera, sedukzioa, armonia, bakea, osasun integrala, konekzioa... sentituko dugu. Gure benetako emakume mugimenduak sentituko ditugu eta gure barne-energia baliatuko dugu musika, mugimendua eta talde topaketaren bidez.

Biodantza gorputz teknika bat da gure indarra eza gutzen eta garatzen lagunduko diguna, autoestimua, konfiantza eta determinazioa garatuz. Ahizpatasuna bultzatuko duen espazio bat sortuko dugu, babes eta errespetuan eta norbere buruaren, besteen eta bizitzaren zaintzan oinarritutako errespetu sarea.

Formatzailea: **Laura Urrutia Jiménez,**
psikologoa eta biodantza bideratzailea

Data eta ordua: **2019ko urriak 15, 22, 29 eta azaroak 5 (Trobiñu)**
2019ko azaroak 12, 19, 26 eta abenduak 3 (Argantzun)
astearteak 18:30etik 20:30era

Tokia: Lehenengo lau saioak C.E.I.P Trobiñuko Liburutegian izango dira
Azken lauak, Siloko erabilera anitzetarako aretoan, Argantzun

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Trobiñuko Konderriko Udala
Argantzungo Udala
Arabako Foru Aldundia

Izen-ematea: inskripzioak@lailaieskola.eus;
ceas11ac1@diputaciondeburgos.es;
945 36 00 18; 945 37 30 06

Berdinzinema - Zineforum Feminista: El despertar de las hormigas

Filma ikusi ostean gure iritzia partekatuko dugu eta jorratutako gaiei buruz eztabaidatu. Hala, gizartean hausnarketa, analisia eta ahalmen kritikoa sortu nahi dugu. Galdera berriak formulatzea erantzun berriak aurkitzeko modurik onena da.

Filma: El despertar de las hormigas



Costa Ricako herri batean bizi da Isabel. Egunero etxeaz, alabez eta bere gizonaz arduratzen da eta horixe berori ikasi eta irakasten die bere alabei.

Isabel ama ona, emazte ona, eta errain ona da. Bere familia politikoak beste haur bat, "semea", izateko presioa egiten diotenean, bere buruari inguruari, eta familiari aurre egitera eramango duten errebelazioak izango ditu.

Ohitura, beroa, bere ile adats luzea, espazio intimoak ere hartzen dituzten intsektu eta bere familiaren presioak Isabelen imajinarioa bihurtzeari ekingo diote. Bere bizitzako 30 urteetan beti egin izan du besteek beragandik espero dutena. Isabelek bere familiari aurre egin edo ez erabaki beharko du.

Koordinatzailea eta dinamizatzailea: **Helena González Estévez**, zine eta Giza Eskubideetan aditua. ZINHEZBA Kultur Elkarte

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 8a**
ostirala 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Siloko erabilera anitzetarako aretoa, Argantzun.

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelaniazko jatorrizko bertsioa

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Argantzungo Udala

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Autodefentsa Feminista lantegia -aurreratua-

Lantegi honen helburua gure egunekotasunean praktikatzen dugun autodefentsa feministan sakontzea da, patriarkatuaren eta gizon matxisten erresistentzia berriak aztertzea, erlazio-marko berri gisa egungo egoera izanik.

Jarrera, desira, mugak, komunikazioa eta gorputza lurralde gisa landuko dugu, eta hori guztia hausnarketa feminista batetik eta bizitza aske eta zoriontsu zein ongizate emozional bat helburu izanik.

Formatzailea: **África Aznar Moriones,**
arkitektoa eta autodefentsa feministarako
formatzailea

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 30a**
larunbata 10:00etatik 14:00etara eta
15:30etik 19:30era

Tokia: Siloko erabilera anitzetarako aretoan,
Argantzun

Norentzat: Batez ere, oinarrizko autodefentsa lantegia
egin duten emakumeak.

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Argantzungo Udala
Arabako Foru Aldundia

Izen-ematea: inskripzioak@laiaeskola.eus;
ceas11ac1@diputaciondeburgos.es;
945 36 00 18; 945 37 30 06

“Burutik jota”, Psico Woman

Psico Woman YouTubera hel-
du da patriarkatua erraietatik
suntsitzera.

Feminismoak hamaika mo-
dutan aldarrika dezake: idatziz,
dantzatuz, oihukatuz, konferenziak
emanez, abestuz, *performanceak* edota lantegiak egi-
nez, emakume taldeak sortuz, autodefentsa praktika-
tuz, bazterretatik, *perreatuz*, emakume, gizon, trans,
galdera ikurra izanik...



Hau, nire forma da. Ongi etorria denoi #TODALOCA-ra.

Formatzailea: **Isa Duque-Psico Woman,**
psikologoa, sexologoa eta *youtuberra*

Data eta ordua: **2020ko urtarrilaren 12a**
igandea 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Trebiñuko Konderriko Udaletxearen azpiko
lokalak

Norentzat: Herritarrak, emakumeak, nerabeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Trebiñuko Konderriko Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Berdinzingema - Zineforum Feminista: Nos batailles

Filma ikusi ostean gure iritzia partekatuko dugu eta jorratutako gaiei buruz eztabaidatu. Hala, gizartean hausnarketa, analisia eta ahalmen kritikoa sortu nahi dugu. Galdera berriak formulatzea erantzun berriak aurkitzeko modurik onena da.

Película: Nos batailles



Laura desagertu egiten da egun batean bere etxetik, non Oliver eta haien bi semeekin bizi den. Oliverrek, nahastuta, bere aita rol berria onartu behar du eta bere kabuz hezi beharko ditu semeak.

Formatzailea: **Helena González Estévez**, zine eta Giza Eskubideetan aditua. ZINHEZBA Kultur Elkarte

Data eta ordua: **2020ko martxoaren 14a**
larunbata 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Trebiñuko Konderriko Udaletxearen azpiko lokalak

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Jatorrizko bertsoia frantsesez, gaztelaniazko azp tituluekin

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Trebiñuko Konderriko Udala

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

